




GAZTEONTZAKO LEHIAKETAK SOLASEAN 2017

- PUBLIZITATE SPOTA
- AURKEZPEN GUTUNA

**SER AUTÉNTICO,
UN VALOR EN ALZA.**



**BENETAKOA IZATEA,
GORAKA DOAN BALOREA.**

Lan guztiek norberak sortutakoak eta honako gaiarekin zerikusia izan beharko dute: “Benetakoa izatea, goranzko balioa”. Zer ulertzen dugu *benetakoa* esaten dugunean? Nola ezagutu *benetakotasuna*? Zergatik izan *benetako* pertsonak? Zer laguntzen digu *benetakoak* izaten? ...

Elizbarrutiko Gazte Pastoraltzako ordezkariak eta Gazteok XXI kutur elkarteak, 2017ko martxoaren 3ko Solasean eztabaida izan baino lehen, gazteentzako bi lehiaketa antolatu dituzte: *Publizitate spota (bideoa)* eta *Aurkezpen gutuna (testu idatzia)*. Lehiaketok 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat dira; eta parte hartzeko ezinbesteko baldintzak honako hauek dira: lana jatorrizkoa, argitaratu gabea, eta batez ere, **benetakoa** izatea.



LEHIAKETEN OINARRIAK:

Izena emateko datuak: izena, deiturak, adina, helbidea, telefono zenbakia eta posta elektronikoaren helbidea. Gazte talde batek izena eman nahi badu, erantsi behar du taldearen jatorria eta ordezkari bat aukeratu beharko du; halaber, izena emateko beharrezkoak diren datuak adierazi beharko ditu.

Ziurtatu zure lanaren hartu izanaren agiria jaso duzula. Hala ez bada, jarri gurekin harremanetan telefono honen bidez: 945.123.483.

Aukeratutako lanak erabili eta erakutsi ahal izango dira Solasean 2017ean edo Gazteok XXI elkarteak erabili ahal izango ditu nahi bestetan egileei ordaindu beharrik gabe.

Epaimahaiak jakinaraziko du bere epaia Solasean bertan (gazteentzako eztabaida), 2017ko martxoaren 3an, Vitoria-Gasteizko Hegoalde gizarte etxearen antzokian.

Sail bakoitzeko sariak: 200€ irabazlearentzat

AURKEZPEN GUTUNA: 2017KO SOLASEAN GIDA DIDAKTIKOA taldeka landu duten gazteentzat bakarrik (gure web gunean lortu ahal duzu: www.gazteok.org). Gutuna ezin izango da orrialde bat baino luzeagoa izan, hau da, karaktere kopurua **2.500 eta 3.000 bitartekoa izango da, zuriuneak kontuan hartuta**. Erabiliko den letra mota Arial 11 (lerroarte bakuna) izango da. Bestalde, izenburu iradokitzailea izan beharko du.

PUBLIZITATE SPOTA: Bideo-iragarki bat izango da; ezin izango da minutu bat baino luzeagoa izan. Proposatutako gaiari buruzkoa izan beharko da. Lanak norberak sortutakoa izan beharko du eta erabiliko diren irudiek eta soinu-bandek eskubideetatik aske egon behar dute.

* **Aurkeztutako lanek bat egiten ez badute lehiaketaren oinarriekin, ezin dira sarigai izan.**

* **Edozein argibide behar izanez gero, jarri gurekin harremanetan. Zorte on!**

Lanak aurkeztu behar dira 2017ko otsailaren 15a baino lehen, Elizbarrutiko Gazteentzako Pastoralatzako ordezkarietan (Desamparados enparantza 1 -3. Pisua, Vitoria-Gasteiz), edo aitor@gazteok.org posta elektronikoaz.

